

## **SAINT GEORGEKO IKASLEEN MISTERIOA**

Jabi Rodriguez Mariano, 14 urte

*Segura*

Han zegoen gorpua, lurrean, bihotza geldirik eta aurpegia zurbil-zurbil zuela. Agerikoa zen hilda zegoela, eta han nengoen ni, gorpuaren ondoan makurturik. Poliziak berriz, han eta hemen, etxe guztia miatzen, froga baliagarriren bat aurkitu nahian. Ni ere antzeko helburuarekin nengoen han, nere lana horixe baita. Nire izena John Pilot da eta Ingalaterrako detektiberik ospetsuenetako bat naiz. Ezaugarri berezi bat ere badut, eta zera da; bakarrik lan egitea atsegin dut inork oztopa ez nadin. Egun horretan, Beverly kaleko hamaseigarrenean hilketa bat izan zelako berri izan nuen, eta denborarik galdu gabe bertara abiatu nintzen.

Hildakoa, 30 urte inguruko gizonezko bat zen eta tiro bat zuen buruan. Hilketa hau, azken hilabetean Londresko hirian gertatzen zen seigarrena

zen, eta biktima guztiak buruan ehizeko eskupetaz eginiko tiro batez hilda agertu ziren. Gainera, kasu honetan ere, eraso etxearen kanpoaldetik egin zen, egongelako leihoa puskaturik baitzegoen balaren eraginaren ondorioz.

– Biktima nor den ba al dakigu?– galdetu nion polizietako bati.

– Bai jauna. Michael Fluid da haren izena eta gainontzeko biktimek bezala, Saint Georgeko Eskolan burutu zituen ikasketak.

“Umm beste pista bat...” pentsatu nuen nire artean.

Orduan etxeruntz abiatu nintzen nere Cadillac zaharrean. Nire susmoa hau zen: bazitekeen hiltzailea biktimen ikaskideren bat izatea, baina oraindik gehiago sakondu behar nuen.

Hurrengo egunean, Saint George Eskolan duela 15 bat urte ikasi zuten ikasleen zerrenda lortu nuen. Eguraldi hotza eta euritsua egiten zuen, abenduari zegokion eguraldi mota, hain zuzen. Nire bulegora iritsi nintzen eta zerrenda irakurtzeari ekin nion. Denak gizonezkoak ziren, baina horrek ez zidan ezer berririk esaten, beraz bizirik gelditzen zirenei galdeketa bat egitea erabaki nuen.

Egun guztia eman nuen galdeketekin. Zirudenez, denak oso ongi moldatzen ziren elkarrekin. Eguardirako ia etsita nengoen, inork ez baitzidan ezer lagungaririk esaten. Hala ere, arratsaldean, ikasleetako batek esan zidan, behin irakasle bati nahiko txantxa ezatsegina egin ziotela, eta

egunen batean mendekua iritsiko zitzaieela esan ziela, baina inork ez omen zuen mehatxua aintzakotzat hartu. Nahiko gizon arraroa eta bakartia omen zen. Klase orduetatik kanpo ez omen zuen ia inorekin hitz egiten. Tom Elsimate zen bere izena eta uste zuenez Londresen bizi zen oraindik.

Ez zen batere erreza izan, baina azkenean Elsimate jaunaren etxea topatzea lortu nuen. Londres hiriko kale baztertu eta ilun batean zegoen. Etxea zahar-zaharra zen, egurrezkoa, beldurgarri horietakoa. Eskaileretan gora abiatu nintzen. Euria goitik behera ari zuen eta blai eginda nengoen. Zaharkituriko atea gogoz jo nuen. Orduan gizon ilezuri batek ireki zidan atea.

– Gabon. Esimate jauna mesedez?– galdetu nion.

– Bai ni naiz. Nor zara zu?

– Ni John Pilot detektibea naiz eta galdera batzuk egitea gustatuko litzaidake.

Ez zidan oso gogo onez erantzun eta ez niola ezer interesgarririk aterako ondorioztatu nuen. Urduri nabaritu nuen. Hala ere, etxe barrura sartzen utzi zidan. Etxe guztia liburuz josia zuen. Baina ez liburuz bakarrik... pareta guztiak animalien buruez beterik zeuden. Eta ez hori bakarrik. Kristalezko bitrina batean ehizeko hiru arma. Bera ote zen erruduna? Pista guztiak baietz adierazten zuten. Ez nintzen gehiegi luzatu eta alde egitea erabaki nuen.

Hala ere, nire autotik linterna bat hartu eta berriro Elsimate jaunaren etxe ondora itzuli nintzen. Kontu handiz egongelako leihoan barrena

begiratu nuen. Han zegoen armetako bat garbitzen. Orduan ondoko gelako leihora joan nintzen. Linternaz argia egin nuen barrura eta... hura ezustekoa!!! Mahai gainean Saint George eskolako ikasleen urtekari bat zeukan denen argazkiekin eta zerrendako lehenengo seiak ixa batez markaturik zeuden. Bera zen hiltzailea!! Baina ezin nintzen horrela sartu, hurrengo egunerarte itxaron beharra neukan, Londresko poliziak emandako agindu bat behar bainuen etxean legez sartzeko.

Beraz, hurrengo egunean, goizean goiz irakaslearen etxera abiatu nintzen. Poz-pozik nengoen ia kasua argiturik bainean. Baina hura ezustekoa iritsi nintzenez! Ez zegoen etxean. Atea ostiko batez bota nuen. Egongelan sartu eta... bitrinatik arma bat falta zen! "Oh ez! Zerrendako hurrengo!!" pentsatu nuen. Orduan urtekarian begiratu nuen. Jason Perry zen hurrengoa. Bere etxerantz abiatu nintzen denborarik galdu gabe. Izugarritzko abiaduran iritsi nintzen eta han zegoen Elsimate jauna etxe parean tiro egiteko prest. Baina nire auto hotsa entzun zuen, eta korrika, berean sartu eta alde egin zuen. Bere atzetik abiatu nintzen. Auto ugari zebiltzan Londresko kaleetan eta horietako batean galdu egin nuen. "Kaka zaharra!" pentsatu nuen, "non sartu ote da?". Orduan zera otu zitzaidan: Saint Georgeko eskola zaharra!

Bertara iritsi eta han zegoen bere autoa. Barrura sartu nintzen kontu handiz. Bat batean eskupeta eskutan zuela agertu zen eta tiro egitera zihoala makurtu, lur eskukada bat hartu eta begietara bota

nion. Gainera jauzi egin nion. Elsimateri eskupeta lurrera erori zitzaion eta bere nahasmena aprobe-txatuz bi muturreko eder oparitu nizkion. Lon-dresko poliziei deitu nien eta berehala atxilotu zuten.

– Primeran, Pilot jauna. Oraingoan ere kasua argitu duzu– esan zidan komisariak.

Nere buruaz harro nengoen. Kasu honen ondo-ren denek nigan zuten miresmena areagotu egin zen. Zerbaitengatik nintzen hain ospetsua, ezta?